



Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea

MEDIKUNTZA  
ETA ERIZAINNTZA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE MEDICINA  
Y ENFERMERÍA

DONOSTIAKO ATALA

SECCIÓN DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

2021 / 2022 Ikasturtea

# **OBULUTEGI POLIKISTIKOAREN SINDROMEA: ERIZAINAREN ESKU-HARTZEA BIZI-ESTILOAREN ALDATZEAN**

Nerea Bacaicoa Cardeñoso



## LABURPENA

**Sarrera:** Obulutegi Polikistikoaren Sindromea (OPS) nahasmendu endokrino eta metaboliko ohikoena da adin emankorreetan dauden emakumeetan. OPSaren ezaugarriak obulazioko disfuntzioak, hiperandrogenismoa eta obulutegi polikistikoaren morfologiaren presentzia dira. Gainera, II. motako diabetes mellitusa (DM2), intsulinarekiko erresistentzia (IR) eta obesitatea bezalako kondizioekin eta ondorio psikologikoekin lotzen da. Bizi-estiloaren aldatzeak (BEA) OPSan duen eragina eta bertan erizainaren esku-hartzea zein den ikertu nahi da.

**Helburuak:** lan honen helburu nagusiak OPSaren sintomak eta komorbilitateak ezabatzeko bizi-estiloan eman beharreko aldaketak zehaztea, BEAren eraginkortasuna neurtzea eta alor horretan erizainaren esku-hartzea zein den ikertzea dira.

**Metodologia:** errebisio bibliografikoa burutu da PIO egituratik abiatuta. Horretarako, datu-base hauek erabili dira: *Pubmed*, *Biblioteca Virtual en Salud* eta *Scielo*. Guztira, 31 lan erabili dira.

**Emaitzak:** bizi-estiloan egin beharreko aldaketei dagokienez, pisua galtzeko elikadura osasuntsuaren printzipio orokorrak eta %30eko defizit kalorikoa gomendatzen da; indize glukemiko baxuko dietek ere onurak dituzte OPSan. Astean gutxienez, 150 minutu ariketa fisiko gomendatzen dira, ariketa aerobikoa eta erresistentzia-ariketak konbinatuz. Gainera, jarrerak eta ohiturak aldatzeko laguntza psikologikoaren ondorioz emaitza hobekak lortzen dira. Bestalde, BEA eraginkorra da OPSaren sintomak eta komorbilitateak hobetzeko. Azkenik, osasun profesionalek OPSdun emakumeentzako bizi-estiloaren inguruko hezkuntza eta laguntza eskaini beharko luketela ikusi da.

**Eztabaida:** orokorrean egile gehienak bizi-estiloan egin beharreko aldaketen eta BEAren eraginaren inguruan ados agertu diren arren, hutsunea antzeman da erizainaren esku-hartzearen alorrean, horregatik etorkizunean alderdi hau jorratzeko gida kliniko berrien eta ikerketa gehiagoren beharra ikusi da.

**Ondorioak:** BEAren osagai nagusiak elikadura, ariketa fisikoa eta laguntza psikologikoa dira eta hauek pisua galtzera edo pisu osasuntsua lortzera bideratuta daude. BEA eraginkorra da OPSaren ezaugarriak eta lotutako komorbilitate-arriskua hobetzeko. Erizainak OPSdun emakumeen pisu-kudeaketan lan egin beharko lukeen arren, zenbait muga daude, esaterako ezagutza espezifikoaren beharra eta denbora falta.

**Hitz-gakoak:** obulutegi polikistikoaren sindromea, bizi-estiloa, erizaintza-zainketak, zeinu eta sintomak eta komorbilitatea.



## AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	1
2.	HELBURUAK.....	3
3.	METODOLOGIA.....	3
3.1.	Bilaketa bibliografikoaren estrategia.....	4
3.2.	Bilaketa bibliografikoaren emaitzak.....	5
4.	EMAITZAK.....	6
4.1.	Bizi-estiloan egin beharreko aldaketak.....	6
4.1.1.	Elikadura.....	6
4.1.2.	Ariketa fisikoa.....	7
4.1.3.	Laguntza psikologikoa.....	8
4.1.4.	Pisu-galera.....	9
4.2.	Bizi-estiloa aldatzearen eragina.....	9
4.3.	Erizainaren esku-hartzea.....	11
5.	EZTABAIDA.....	12
6.	ONDORIOAK.....	14
7.	BIBLIOGRAFIA.....	15
8.	ERANSKINAK.....	21

## TAULEN AURKIBIDEA

1. <b>taula:</b> lehen mailako bilaketa bibliografikoa egiteko erabilitako <i>DeCS</i> eta <i>MeSH</i> deskriptoreak eta hitz gakoak.....	4
---	---

## ERANSKINEN AURKIBIDEA

1. <b>eranskina:</b> lehen mailako bilaketa bibliografikoan erabilitako estrategia eta lortutako emaitzak.....	21
2. <b>eranskina:</b> <i>Alper</i> eta <i>Haynes</i> -en piramidea.....	22
3. <b>eranskina:</b> datu-baseetatik aukeratutako artikulua eta hauen ebidentzia-maila.....	23
4. <b>eranskina:</b> IGB eta IGAKo dieten inguruko ikerketen emaitzak.....	30
5. <b>eranskina:</b> pisu-kudeaketarako ariketa fisikoaren gomendioak.....	31
6. <b>eranskina:</b> ariketa fisikotzat har daitezken egunerokotasuneko jarduerak.....	31

<b>7. eranskina:</b> bizi-estilo osasuntsua, pisu-kudeaketa, eta ongizate emozionala hobetzeko gomendatutako teknikak .....	32
<b>8. eranskina:</b> gainpisua edo obesitatea duten OPSdun emakumeen komorbilitate psikologikoak .....	32

## **LABURDURAK**

**AAI:** Androgeno askeen indizea.

**ASO:** Antisorgailu oralak.

**BEA:** Bizi-estiloaren aldatzea.

**BVS:** Biblioteca Virtual en Salud.

**DeCS:** Descriptores en Ciencias de la Salud.

**DM2:** II. motako diabetes mellitusa.

**GLSH:** Globulinei lotutako sexu-hormonak.

**GMI:** Gorputz-masa indizea.

**HDL:** High-density lipoproteins.

**IGA:** Indize gluzemiko altua.

**IGB:** Indize gluzemiko baxua.

**IR:** Intsulinarekiko erresistentzia.

**LDL:** Low-density lipoproteins.

**MeSH:** Medical Subject Headings.

**OPS:** Obulutegi Polikistikoaren Sindromea.





## 1. SARRERA

Obulutegi Polikistikoaren Sindromea (OPS) nahasmendu endokrino eta metaboliko ohikoena da adin emankorrean dauden emakumeetan (1, 2). Mundu mailan, adin-tarte horretako emakumeen %5-10ak pairatzen duela estimatzen da (1), eta ikerketa batzuen arabera prebalentzia %20era iristen da diagnostiko-irizpide zabalagoak erabilita (1-3).

OPS-aren presentazio/fenotipo bakar bat baino gehiago dagoela ulertzea beharrezkoa da (2), sindromea oso heterogeneoa baita (1, 3, 4). Ezaugarri gisa, anormalitate kliniko eta metaboliko larriak ditu (5) eta sindrome terminoak, adierazpen klinikoen multzoa adierazten du (4).

Azken ebidentziek, OPSaren diagnostikorako Rotterdam irizpidea erabiltzea gomendatzen dute (2, 4), eta honetarako pazienteak hiru irizpideetako bi bete behar ditu gutxienez (1, 5); gainera ez du sintoma horiek sortzen duen beste patologiarik izan behar (1, 2):

- Oligomenorrea edo anobulazio kronikoa.
- Hiperandrogenismo kliniko edo/eta biokimikoa.
- Obulutegi polikistikoaren morfologia izatea, ultrasoinu bidez identifikatuta.

OPSak sortzen dituen sintomei dagokienez, bi taldetan sailkatzen dira; alde batetik sintoma dermatologikoak, eta bestetik, obulazioaren disfuntzioak daude.

Sintoma dermatologikotzat hirsutismoa, alopezia eta aknea hartuko genituzke, eta hauek hiperandrogenismoaren zeinuak izango litezke (5).

**Hirsutismoa** gorputzeko ilearen ugartzea da, bai kantitatez edo ohikoa ez den gunean hazteagatik (2, 5). Normalean ondoko guneetan azaltzen da: kokotzean, lepoan, aurpegi beheraldean, patilletan, gune lunbarrean, abdomenean, ipurmasailtan, gune perinealean, izter barrualdean eta bularreko areolen inguruan. Hirsutismoa denborarekin gradualki agertu ohi da eta pisua irabaztearekin batera nabarmentzen da.

OPSarekin erlazionatutako **alopeziak**, gizonaen alopeziaren patroia bera izan ohi du: ile galera *vertex*ean/koroan edo modu difusioan ematen da. Hala ere, hiperandrogenemia larria duten emakumeek, ile galera bitenporala eta kopetaldekoa izan ohi dute (5).

**Aknea**, nerabezaroaren ondoren agertu edo bat-batean 25-35 urterekin okertzen denean, hiperandrogenismoaren zeinu kliniko eta odoleko plasmako testosterona altuaren

adierazle izan daiteke. Akneak OPS duten emakumeetan hirsutismoak baino prebalentzia txikiagoa du eta ez da OPSarekiko hain espezifikoa, OPS duten emakume helduen %15-30ak baino ez baitu aknea (5).

Bestalde, **obulazioko disfuntzioak (oligomenorrea eta amenorrea kronikoa)** eta **hileko zikloaren irregulartasunak** lotzen zaizkio OPSari. 35 egun baino gehiago irauten duten zikloek anobulazioa adierazten dute (5), eta honek endometrioko hiperplasia eta minbizia izateko arrisku handiagoa dakar, baita antzutasuna ere (2, 5).

Antzutasunaren %30a, antzutasun ez-obulatorioa da, eta kasu hauen %90ean OPSagatik izan ohi da (1). Gainera, OPS duten emakume haurdunek, haurdunaldiko konplikazioak, hala nola haurdunaldiko diabetesa, nahasmendu hipertentsiboak, eta erditze goiztiarrak izateko arrisku handiagoa dute (3).

Diagnostikorako ezinbestekoak ez diren, baina OPSarekin erlazionatzen diren zenbait kondizio daude, hala nola, intsulinarekiko erresistentzia (IR), hiperintsulinemia, eta obesitatea (2, 4, 5). OPS duten pazienteen %60-80ak IR du (1, 5), eta OPSdun paziente obesoek %95ak IR dute (2). Gainera, II. motako diabetes mellitusarekin (DM2) (2), dislipemiarekin, hipertentsio arteriarekin, endometrioko minbiziarekin, gantzezko gibelaren sindromearekin, eta loaren apnearekin lotzen da baita arrisku kardiobaskular altuagoarekin ere (2, 4, 5).

Bestalde, zenbait ikerketen arabera, depresioa (2, 4), drogekin lotutako nahasmenduak, nahasmendu bipolarra, bulimia, anorexia eta beste elikaduraren nahasmendu batzuk ohikoagoak dira OPS duten emakumetan (5).

Hau dena kontuan hartuta, esan dezakegu OPS duten emakumeek, osasun-arazoak izateko arrisku handiagoa dutela ez bakarrik ugaltze-osasunean, osasun kardiobaskular, endokrino eta psikologikoan ere (5).

Gaur egun, OPSaren patogenesisi mekanismoa ez dago guztiz argi, baina faktore genetiko, ingurugiroko faktore (dieta, bizi-estiloa...) eta barne faktore enbrionarioen menpe dagoela uste da (1, 2, 4). Patogenesisia ezezaguna denez, tratamendua sintomen arintzean oinarritzen da, ez sorburua ezabatzean (5). Horregatik esaten da ez dagoela sendatzerik, eta bizitza guztirako kondizio bat dela (1).

OPSaren ohiko tratamenduari dagokionez, epe motzera ama izan nahi duten emakumeei, antzutasuna tratatzeko teknikak eskaini ohi zaizkie (3, 5). Bestalde, epe motzera ama izan

nahi ez dutenei, antisorgailu oralak (ASO) eman ohi zaizkie sintomak arintzeko lehen aukera bezala (1-3, 5).

ASOak sindromearen sintomak tratatzeko oso eraginkorrak diren arren (4), epe luzera erabiltzen badira zainetako tronbosi arriskua eragiten dute (1). Gainera, IR duten OPSdun pazienteek DM2 izateko arrisku handiagoa dute, ASOak hartzen badituzte (1). ASOek sortzen dituzten onurak kalteak baino gehiago direla uste den arren (1), zenbait ikerketetan ikusi da, OPS duten emakumeen sintomak arintzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko, bizi-estiloa eta ohiturak hobetzea ezinbestekoa dela. Honela, bizi-estiloaren aldatzea (BEA) lehen mailako tratamendu gisa hartu beharko litzateke, beste tratamenduez gain (1).

BEA, elikaduraren, ariketa fisikoaren eta jarreran egiten diren interbentzio egituratuen multzoa bezala definitzen da (7).

Bizi-estiloa, osasun egoera orokorrean eragina duen faktore garrantzitsuenetakoa da. Indibidualizatutako dieta batek eta ariketa fisikoak, metabolismoaren erregulatzea eta pisu osasuntsuaren mantenimendua sustatzen dute (6).

Alde horretatik, populazioaren osasunaren sustapena erizainaren eginkizun nagusietako bat denez, erizaina posizio paregabea dago OPS duten pazienteei laguntzeko (5). Hori horrela, lan honetan bizi-estiloaren aldatzearen (BEAren) eraginkortasuna aztertu nahi izan da OPSaren sintomak arindu eta lotutako komorbilitate-arriskua gutxitzeko.

## **2. HELBURUAK**

Hauek dira lanaren helburu nagusiak:

- OPSaren sintomak arintzeko eta komorbilitatea gutxitzeko bizi-estiloan eman beharreko aldaketak zeintzuk diren zehaztea.
- Bizi-estiloa aldatzeak OPSaren sintometan eta komorbilitatean zenbaterainoko eragina duen aztertzea.
- Erizainaren esku-hartzea definitzea OPS duten emakumeen bizi-estiloaren aldatzean.

## **3. METODOLOGIA**

Aurreko helburuak lortzeko, errebisio bibliografiko bat egin da. Jarraian, errebisioa egiteko erabili den estrategia eta aurkitu diren emaitzak deskribatzen dira.

### 3.1. BILAKETA BIBLIOGRAFIKOAREN ESTRATEGIA

2021eko abendutik 2022ko otsailera arte, bilaketa bibliografikoa *Pubmed*, *Biblioteca Virtual en Salud (BVS)* eta *SciELO* datu-baseetan egin da.

Bilaketa bibliografikoa egin aurretik eta ahalik eta informazio zehatzena bilatzeko asmoz, PIO egitura jarraitu da:

- **Patient** (pazientea edo taldea): OPS duen emakumea.
- **Intervention** (esku-hartzea): bizi-estiloan aldaketak.
- **Outcomes** (emaitzak): OPSarekin lotutako sintomak eta komorbilitate-arriskua gutxitzea edo/eta ezabatzea.

PIO egitura kontuan hartuz, ikerketa-galdera hau sortu da: *Zeintzuk dira bizi-estiloan egin beharreko aldaketak OPSaren sintomak desagertu eta komorbilitate-arriskua gutxitzeko edo/eta ezabatzeko eta zein izango da erizainaren esku-hartzea alor horretan?*

PIO egitura zehaztu ondoren, *Thesaurus-eko Descriptores en Ciencias de la Salud (DeCS)* eta *Medical Subject Headings (MeSH)* deskriptoreak nahiz hitz gakoak bilatu dira (ikus 1. taula).

**1. taula.** Lehen mailako bilaketa bibliografikoa egiteko erabilitako DeCS eta MeSH deskriptoreak eta hitz gakoak.

PIO egitura	DeCS	MeSH	Hitz gakoak
<b>P</b>	Síndrome del Ovario Poliquístico	Polycystic Ovary Syndrome	-
<b>I</b>	Estilo de Vida	Life Style	-
	Atención de Enfermería	Nursing Care	
<b>O</b>	Signos y Síntomas	Signs and Symptoms	Síntomas / Symptoms
	Comorbilidad	Comorbidity	Prevención / Prevention

Aipatutako datu-baseetan bilaketa egiteko, “AND” operatzaile boolearra erabili da eta deskriptore eta hitz gakoaren arteko konbinazioak egin dira.

Bilaketa bibliografikoa egitean, bibliografia iragazi eta hautatzeko, mugak jarri dira barneratze- eta baztertze-irizpideak erabiliz.

**Barneratze-irizpideei dagokienez**, aurkitutako artikuluetatik ikerketa-galderari erantzuna emateko gai direnak soilik aukeratu dira. Horretarako irizpide hauek jarri dira:

- Argitaratze-datari dagokionez azken 5 urteetan argitaratuko artikulua izatea (artikulu berriek lehentasuna izan dute).
- Artikulua eskuragarri egotea gazteleraz edo ingelesez.
- Artikuluaren gai nagusia OPS izatea eta sintomen arintzearekin lotutako bizi-estiloaren aldatzea lantzea.

**Kanporatuak** izan diren artikulua aldiz, gaiarekin zerikusirik ez duten eta ikerketa-galderari erantzuten ez dioten artikulua dira. Baita aurreko baldintzak betetzen ez dituzten artikulua ere. Hala nola, OPSdun emakumeek BEA programekiko duten jarrera eta iritzia aztertzen duten artikulua baztertu dira.

Aipatutako irizpideak betetzeko asmoz, datu-base bakoitzean **iragazki** hauek aplikatu dira: azken bost urteetan argitaratuta eta gazteleraz eta ingelesez idatzitako artikulua.

### **3.2. BILAKETA BIBLIOGRAFIKOAREN EMAITZAK**

Azkenik artikuluen izenburu eta laburpenen irakurketa egin da, barneratze- edo kanporatze-irizpideak betetzen dituzten ikusteko. Ondoren, irakurketa sakona eginez, iragazitako artikuluetatik lanerako baliogarriak eta egokiak direnak bakarrik hautatu dira.

Lehenik, aipatutako hiru datu-baseetan lehen mailako bilaketa bibliografikoa egin da, eta emaitzak honako hauek izan dira: Pubmed datu-basean, 22 artikulua hautatu dira, BVSn 7 eta Scielo-n 1. Guztira, ezarritako irizpideak betetzen zituzten 30 artikulua aukeratu dira (ikus 1. eranskina). Artikulu horietako batzuetan, lanerako interesgarria den praktika klinikorako gida bat aipatzen da. Gida hori erabili ahal izateko, bigarren mailako bilaketa bibliografikoa egin da, lehen mailako bilaketa bibliografikoan aukeratutako artikuluen bibliografia oinarritzat hartuta. Hori dela eta, guztira 31 dokumentu hautatu dira: 2 gida, 7 errebisio sistematiko, 11 errebisio narratibo, eta 11 ikerketa.

Artikulu horien guztien ebidentzia-maila zehazteko, *Alper eta Haynes*-en piramidea erabili da (8) (ikus 2. eranskina). 3. eranskinean, lehen eta bigarren bilaketa bibliografikoetan lortutako artikulua daude, ebidentzia-maila altuena duenetik baxuena duenera sailkatuta. Gainera, hauen izenburua, artikulua mota, egileak, datu-basea, argitarapen-urtea eta ondorio nagusiak azaltzen dira.

## **4. EMAITZAK**

### **4.1. BIZI-ESTILOAN EGIN BEHARREKO ALDAKETAK**

BEA honela definitzen da: elikadura edo ariketa fisikoan egindako interbentzio egituratuak eta laguntza psikologikoa, jarrerak eta ohiturak aldatzeko estrategiak sustatzeko. Normalean, interbentzio hauek pisu-galerara edo pisu osasuntsua mantentzera bideratuta daude (9-20).

#### **4.1.1. Elikadura**

OPSarentzako elikadura-gomendioekin lotuta, aurkitutako praktika klinikorako gidetako (9, 10) zenbait artikulua eta ikerketek, proteina altuko dieta, karbohidrato altuko dieta eta hipertentsioaren aurkako dieta eta hauek OPSan izandako eraginak aztertu zituzten. Ondorio gisa, orokorrean emaitza antropometrikoetan, metabolikoetan, eta erreproduktiboetan, bizi-kalitatean eta ongizate emozionalean ez zen desberdintasunik topatu dieta baten eta bestearen artean. Hau, beste egile batzuen lanen (20-25) ondorioekin bat dator: dieta mota zehatz batek baino gehiago, pisu-galera helburu zuten dietek OPSdun emakumeetan onurak sortu zituztela.

Gaur egungo ebidentzian oinarritutako gidak eta beste zenbait autorek (9, 10, 12, 14, 26-28) pisu-galera lortzeko elikadura osasuntsuaren printzipio orokorrak gomendatzen dituzte OPSdun emakumeen bizitzako etapa guztietan. Gainera, Teede et al.-en gidak (9), %30eko edo 500-750 kcal-eko defizit kalorikoa gomendatzen du, egunean 1,200-1500 kcal-eko dieta esaterako. Garrantzitsua da ordea, indibidualizatutako dieta izatea eta bakoitzaren energia-behar indibidualak, pisua, janari-gustuak eta egiten den ariketa fisikoa ere kontuan hartzea (9, 20).

Bestalde, Kazemi et al.-en 2020ko errebisio sistematikoan (29) indize glukemiko baxuko (IGB) dieta eta indize glukemiko altuko dieta (IGA) alderatu zituzten OPSdun emakumeetan. Lortutako ondorioak ikusita (4. eranskinean), IGBko dietak gomendatzen dira, beste egile batzuen gomendioekin batera, (20, 24, 29-34) OPSaren sintomen maneiorako.

Azkenik, Faghfoori et al.-en errebisio narratiboan (22) OPSdun emakumeen dieta honelakoa izatea gomendatzen da: gantz-azido ase edo saturatu gutxikoa eta omega-3 eta gantz-azido asegabeen kantitate estandarrekoa. Gainera, zuntzean aberatsa den dieta izateko, zereal integralak, lekaleak, barazkiak eta frutak gomendatzen dira, baina karbohidratoek IGBkoak izan behar ditu.

#### 4.1.2. Ariketa fisikoa

Zenbait egileren arabera (9, 10, 13, 21, 31, 35, 36), ariketa fisikoak onura ugari eragiten ditu OPSan. Lortutako emaitza metabolikoei lotuta, ariketa fisikoak emaitza gluzemikoak, IR, profil lipidikoa orokorrean eta markadore kardiometabolikoak hobetu zituen. Gainera, atsedeneko indize metabolikoa areagotu zuen. Emaitza antropometrikoei dagokienez, ariketa fisikoaren ondoriozko gorputz-masa indizearen (GMI), gorputzeko gantz kantitatearen eta gerri-zirkunferentziaren murrizketa ikusi ziren. Ugalkortasun-emaitzekin erlazionatuta, ariketa fisikoa obulazio-tasa hobeeekin eta hileko ziklo erregularrekin lotu zen. Bestalde, bizi-kalitatearekin, osasun mentalarekin eta emozioekin lotutako emaitzak ere hobetu ziren ariketa fisikoaren ondorioz.

Ariketa fisiko motari dagokionez, bat baino gehiago daude eta honela sailkatzen dira (9, 10): ariketa fisiko aerobikoa (gaitasun aerobikoan oinarritzen dena), erresistentzia ariketak (muskulu masa eta indarra lantzen dituen) edo bien konbinazioak. Intentsitateari dagokionez, arina, moderatua, aurreratua edo intentsitate altukoa izan daiteke.

OPSDun emakumeentzako ariketa fisikoaren inguruko gomendioak honako hauek dira, Teede et al.-en eta Moran et al.-en praktika klinikorako gidan (9, 10) eta Neven et al.-en eta Anwar et al.-en errebisio narratiboen arabera (19, 33): helduetan pisu-irabazpenaren prebentziorako eta mantenimendurako intentsitate moderatuko 150 minutu edo intentsitate aurreratuko 75 minutu gomendatzen dira astean gutxienez eta pisu-galera txikirako edo pisu-irabazpena ekiditeko intentsitate moderatuko 250 minutu edo intentsitate aurreratuko 150 minutu. Gainera, muskuluak indartzeko ariketak, erresistentzia-ariketak alegia, gomendatzen dira astean bitan. Gomendio zehatzagoak 5. eranskinean ageri dira.

Bestalde, Teede et al.-en gidan (9) asteko bost egunetan programatutako 30 minutu ariketa fisiko egiteaz aparte (31), egunerokotasuneko jardueren garrantzia aipatzen da (honen adibideak 6. eranskinean).

Speelman et al.-en eta Smyka et al.-en (30, 31) arabera, ariketa-fisiko aerobikoa eta erresistentzia-ariketak konbinatu beharko lirarteke, OPSdun emakumeetan sortzen dituzten onurak direla eta, eta Benham et al.-ek (35), intentsitate altuko interbaloen entrenamenduak ere gomendatzen dituzte.

Ariketa fisikoaren inguruko gomendioak direnak direla, ariketak indibidualizatuta eta pazientearen beharretara egokituta egon behar du. Horrez gain, ariketak planifikatzeko

garaian, emakumearen eta familiaren ohiturak eta kultura kontuan hartu behar dira (9, 20, 31).

Aipatu beharra dago, emaitza hobeak lortzeko, auto-monitorizaziorako ariketa fisikoaren segimendurako gailuak eta teknologiak erabili ahalko liratekela pausuak eta ariketa-intentsitatea kontrolatzeko, baita bizi-estilo aktiboa sustatzeko eta jarrera sedentarioak ekiditeko (9).

#### **4.1.3. Laguntza psikologikoa**

Arestian aipatu bezala, OPS duten emakumeek gogo-aldartearen zenbait nahasmendu izateko arrisku handiagoa dute (19). Hau kontuan hartuta, OPSak bizi-kalitatean eta osasun mentalean duen eraginari, OPSaren beste eragin antropometrikoei, erreproduktiboei eta metabolikoei ematen zaien adinako garrantzia ematea garrantzitsua da (13, 19, 37). Gainera, psikoterapia, aukera erabilgarri gisa hartu beharko litzateke OPSdun emakumeetan aldartearen hobetu, antsietatea eta depresioa gutxitu eta gorputz-irudiarekin lotutako emozio negatiboak kontrolatzen ikasteko (20).

Beste alde batetik, zenbait egileren ondorioetan oinarrituz (9, 10, 18, 19, 35), elikaduraren edo ariketa fisikoaren eragina bakarrik aztertu zuten OPSari buruzko artikuluek pisuaren mantenimendua puntu ahul gisa ikusi zuten, eta beste jarrera batzuen beharra ikusi zuten. Aipatutako terapia hauek, pisu-galera handiagoarekin eta emakumeen ongizatearekin lotzen dira, eta elikadurarekin eta ariketa fisikoarekin konbinatzen direnean, emaitza hobeak lortzen dira, esaterako atxikimendu hobea eta BEAren eragin handiagoa (9, 10, 17, 19).

Gaur egungo nazioarteko gidek jarrerak edo ohiturak aldatzeko tekniken, autogestio tekniken eta babes edo laguntza sozialaren integrazioa gomendatzen dute. Horrez gain, zenbait teknika (7. eranskinean ikusgai) sustatzeraren garrantzia azpimarratzen da bizi-estilo osasuntsua, pisu-kudeaketa, eta ongizate emozionala hobetzeko (9, 10, 19). Chilingua et al.-en arabera (25) adibidez, OPSaren tratamendu integral batek aholkularitza, laguntza psikologikoa, meditazio teknikak, erlaxazioa, prebentziora bideratutako hezkuntza, familia-laguntza eta laguntza taldeetan parte hartzea kontuan hartu beharko lituzke. Gainera, Lim et al.-en errebisio sistematiko batean (13), estresa kudeatzeko esku-hartzeen ondorioz ere, bizi-kalitatea ebaluatzean puntuazio altuagoak ikusi ziren.



#### **4.1.4. Pisu-galera**

OPS duten emakumeen %88ak gainpisua edo obesitatea dauka (9, 10, 14, 22, 30). Egile askoren arabera (9, 10, 14, 16, 19, 21, 22, 33), obesitateak eta gehiago obesitate zentralak/sabelaldekoak IR, hiperlipidemia (gaixotasun kardiobaskularra izateko arrisku faktorea) eta hiperandrogenismoa areagotzen ditu, OPSaren ezaugarri klinikoak eta hauen prebalentzia handituz. Gainera, OPSdun emakumeei kezkatu ohi dien alderdi bat da, horregatik hau prebenitzea garrantzitsua da (9, 10).

Zenbait egileren arabera (9, 10, 12, 14, 16, 21, 30, 31) BEAk eragindako pisu-galerak hobekuntzak sortu zituen OPSan: GMIaren, abdomeneko gantzaren, IRaren eta LDL kolesterolaren murrizketa eragin eta orokorrean ugaltzearen eta profil metabolikoa hobetu zituen. Zenbait iturrik diotenez (9, 13, 14, 18, 22, 25, 30, 38) %5-10eko pisu-galerak klinikoki garrantzi handia dauka. OPSdun emakumeetan sabelaldeko obesitatea hobetzeaz gain, ugaltzearen onurekin, osasun metabolikoaren onurekin eta onura psikologikoekin lotzen da. 2-3kg-ko pisu-galera adibidez, glukosaren tolerantzia desorekatua gutxitzearekin eta gaixotasun kardiobaskularra eta DM2a izateko arriskua gutxitzearekin lotzen da populazio orokorrean (13, 21).

Kataoka et al.-en 2017ko errebisio sistematikoan eta Wang et al.-en egileen 2021eko ikerketa batean (27, 39), pisu-galerarako bizi-estilo interbentzioek duten eragina aztertzen zuten. Interbentzioek OPS zuten eta ez zuten emakumeen artean eragin antzekoak sortu zituzten arren, gaur egungo nazioarteko gidaren gomendioak jarraituz, OPSdun emakumeetan populazio orokorrarentzako pisu-galera gomendioak aplikatzea gomendatzen da (9, 10, 12, 14, 26-28). Gomendioei dagokienez, adituen arabera bizi-estiloa aldatu beharko litzateke lehen aukera gisa (9-11, 16).

Azkenik gehitzeko, pisuaren monitorizazioa edo segimendua emaitza hobekin lotzen da epe motzera zein luzera. Horregatik, populazio orokorrarentzako gidak, pisuaren, GMIaren eta beharrezkoa denean gerri-zirkunferentziaren monitorizazioa aholkatzen dute (9, 10).

#### **4.2. BIZI-ESTILOA ALDATZEAREN ERAGINA**

Elikaduran eta ariketa fisikoan egindako aldaketan eta jarrerak aldatzera bideratutako tekniken eragina modu konbinatuan aztertzen da zenbait artikulutan, honela eragin handiagoa eta emaitza hobekiak lortzen direla ikusi baita (9, 10, 18, 38). BEAk OPSan duen eragina neurtzeko, emaitza endokrinoak, eta hauekin lotutako ugalkortasun-emaitzak,

emaitza antropometrikoak, emaitza metabolikoak, eta bizi-kalitatearekin lotutako emaitzak bereizi dira (13).

Emaitza endokrinoei lotuta, aurkitutako bi gidetan (9, 10) androgeno askeen indizean (AAI) eta globulinei lotutako sexu-hormona (GLSH) mailetan BEAren eraginik topatu ez zen arren, Lim et al.-en, Pundir et al.-en eta Kim et al.-en errebisio sistematikoetan (11-13), BEAk orokorrean GLSH mailak igotzeko eta AAI hobetzeko ahalmena zuela ondorioztatu zuten. Horrez gain, zenbait egilek (9-13) BEAk testosterona maila totalak jaitsi zituela ikusi zuten. Bestalde, Lim et al.-en Dietz de Loos et al.-en eta Pundir et al.-en arabera (12, 13, 38), BEAk hiperandrogenismo kliniko zein biokimikoa hobetu zezakeela ondorioztatu zuten, ondorioz hirsutismoaren murrizketa arina ere eraginez. Hau guztia, ugalkortasunarekin lotutako emaitza hobekin lotzen da, obulazioko disfuntzioak eta obulutegi polikistikoen morfologia hobetzearekin esaterako.

Emaitza antropometrikoei dagokienez, aurkitutako bi praktika klinikorako gidetan (9, 10) ez zen GMian BEAren eragin esanguratsurik topatu. Lim et al.-en eta Pundir et al.-en errebisio sistematikoetan (12, 13) aldiz, BEAren ondoriozko pisu-galera handiagoaz gain, GMiaren, gerri-perimetroaren eta gerri-aldaka indizearen murrizketa handiagoa ikusi zen, tratamendurik jaso ez zuten OPSdun emakumeekin alderatuta. Gainera, Kim et al.-en eta Khatlani et al. egileen errebisio sistematikoetan (11, 21), BEA metformina bezain eraginkorra izan zen GMia eta pisua gutxitzeko.

Emaitza metabolikoekin lotuta, aurkitutako gidetan (9, 10) orokorrean ez zen desberdintasunik antzeman glukosa eta lipido mailetan. Lim et al.-en eta Khatlani et al.-en errebisio sistematikoetan aldiz (13, 21), kolesterol totalaren eta dentsitate baxuko lipoproteinako (LDL) kolesterolaren jaitsiera ikusi zen BEAren ondorioz, baina ez zen baraurik edukitako glukosa mailetan, dentsitate altuko lipoproteinako (HDL) kolesterolean eta triglizerido mailetan aldaketarik ikusi. Beste alde batetik, bi gidetan eta Lim et al.-en eta Pundir et al.-en errebisio sistematikoetan (9, 10, 12, 13), BEA, tratamendurik ez jasotzea baino eraginkorragoa izan zen baraurik izandako intsulina mailak eta ahozko glukosaren tolerantzia hobetzeko. Honekin lotuta, Lim et al.-en Khatlani et al.-en eta Kim et al.-en egileen errebisio sistematikoetan (11, 13, 21), BEAk eragin positiboa izan zuen IR indizean kontrol taldeekin alderatuta. IRak OPSaren ezaugarriak okertzen dituela eta glukosarekiko tolerantzia desorekatua, DM2a eta arrisku kardiobaskularra izateko arriskua sortzen duela jakinda, IRaren gutxitzeak, OPSaren sintomen eta ezaugarri klinikoen gutxitzea dakar (13). Horrez gain, Dietz de Loos et al.-

en ikerketan (18), sindrome metabolikoaren prebalentzia eta larritasuna ere nabarmen jaitsi ziren BEA programa batean parte hartu zuten OPSdun pazienteetan.

Bizi-kalitatearekin lotutako emaitzei dagokienez, aurkitutako praktika klinikorako bigidetan (9, 10) bizi-kalitatea eta pazienteen gogobetetzea aipatzen zuen artikulurik topatu ez zen arren, Lim et al.-en errebisio sistematiko batean (13), BEAren ondorioz bizi-kalitatea ebaluatzean puntuazio altuagoak ikusi ziren, emozioei eta ernalezintasunari dagokionez. Gainera, Chilibingua et al.-en arabera (25) BEAk OPSdun emakumeen bizi-kalitatearen hobekuntza bultzatzen du. Bestalde, Jiskoot et al.-en 2020ko ikerketa batean (15) BEA programa batek, autoestimuan eta depresioan ere hobekuntza handiak eragin zituen OPSdun emakumeetan.

Amaitzeko, aipatutako BEAren eragin onuragarriak ikusita, egile gehienak bat datoz: BEA OPSaren lehen mailako tratamendua izan beharko litzateke (9-11, 14, 16, 18-22, 24, 26, 30, 31, 33, 38).

### **4.3. ERIZAINAREN ESKU-HARTZEA**

Emakumeek, OPS diagnostikatu ondoren, antsietatea eta frustrazioa sentitu ohi dute, behar duten adina informazio ez dutenaren sentsazioa dela eta, eta BEAren inguruko informazio eta laguntza ez egokia dagoela diote (9, 34). Honekin lotuta, aurkitutako Teede et al.-en gidaren arabera (9), osasun-profesionalek OPSdun emakumeentzako bizi-estiloaren inguruko hezkuntza eta laguntza eskaini beharko lukete, gehiegizko pisuaren irabaztea prebenitzeko eta beharrezkoa denean pisua galtzeko. Aldi berean, alde psikosozial, kultural eta etnikoak kontuan hartzearen garrantzia aipatzen da gidan, ongizate emozionala azpimarratuz. Beste alde batetik, gainpisua edo obesitatea duten OPSdun pazienteen komorbiditate psikologikoak (8. eranskinean) kontuan hartuta, errespetuz jokatzeko ere beharrezkoa da, pisuarekin lotutako estigma, gorputz-irudi negatiboa edo/eta autoestimu baxua lantzeko garaian (9, 10, 14, 19).

BEA programen arazo ohikoenak emakumeen huts-egiteak eta arestian aipatu den atxikimendu falta dira (9, 10, 18, 35), normalean OPSarekin lotutako oztopoen edo hesi orokorragoen ondorioz. Hau dela eta, osasun-profesionalek eta pazienteek kontuan hartu beharko lukete OPSdun emakumeek pisu-irabazpen eta obesitate prebalentzia altuagoa dutela eta honek eragina duela ongizate emozionalean (9, 14). Gainera, osasun-profesionalen aldeko jarrera ulerkor batek atxikimendua eta mantenimendua areagotu eta OPSdun emakumeen osasun-emaitzak hobetuko lituzke (9).

Amaitzeko, Gibsom-Helm et al.-en arabera (34) osasun-profesionalen informazio-beharrei buruzko ikerketa gutxi daude. Horrez gain, Teede et al.-en gidaren arabera (9) elikaduraren inguruko hezkuntza beharra nabarmena da, pazienteen eta osasun-profesionalen aldetik. Horregatik, OPSari buruzko informazio-iturriak ulergarriak, ebidentzian oinarritutakoak, alderdi bio-psiko-sozialak kontuan hartzen dituztenak, eta eskuragarriak izan beharko lukete (34).

## **5. EZTABAIDA**

Lan honen helburu nagusiak, bizi-estiloan zein aldaketa egin behar diren zehaztea, BEAk OPSaren sintometan eta komorbilitateetan duen eragina neurtzea, eta OPSdun emakumeen BEAn erizainaren esku-hartzea zein den aztertzea izan dira. Lanaren helburuak betetzea lortu den arren, erizainaren esku-hartzearen alorrean hutsunea antzeman da.

OPSaren ezaugarriak hiperandrogenismoa (klinikoki hirsutismo, akne edo alopezia bezala), obulazioko disfuntzioak eta obulutegi polikistikoen morfologiaren presentzia dira (1, 2, 5). Gainera DM2a, IR eta obesitatea bezalako kondizioekin, arrisku kardiobaskularrarekin eta ondorio psikologikoekin ere lotzen da (2, 4, 5).

Bizi-estiloan egin beharreko aldaketei dagokienez, zenbait artikuluren arabera (9-20) BEAren osagai nagusiak elikadura, ariketa-fisikoak, eta laguntza psikologikoa dira eta hauen helburua pisu osasuntsua lortzea edo mantentzea izan ohi da.

Elikadurarekin lotuta, pisu-galera helburu duen dietak onura ugari ditu OPSdun emakumeetan (9, 10, 20-25). Pisu-galera lortzeko, zenbait autorek (9, 10, 12, 14, 26-28) elikadura osasuntsuaren printzipio orokorrak gomendatzen dituzte, baita %30eko edo 500-750 kcal-eko defizit kalorikoa (9), betiere bakoitzaren egoerara egokituta (9, 20). Bestalde, zenbait egilek (20, 24, 29-34) IGBko dieta gomendatzen dute OPSan dituen onurak ikusita.

Zenbait egileren arabera (9, 10, 13, 21, 31, 35, 36), ariketa fisikoak onura ugari eragin zituen OPSaren ezaugarrietan. Ariketa fisikoaren gomendioei dagokienez helduetan pisu-irabazpenaren prebentziorako eta mantenimendurako intentsitate moderatuko 150 minutu edo intentsitate aurreratuko 75 minutu gomendatzen dira astean gutxienez eta pisu-galera txikirako edo pisu-irabazpena ekiditeko intentsitate moderatuko 250 minutu edo intentsitate aurreratuko 150 minutu (9, 10, 19, 33). Gainera, ariketa fisiko aerobikoaz gain, indarra lantzeko erresistentzia-ariaketak gomendatzen dira (9, 10, 19, 30, 31, 33).

Benham et al.-ek (35) intentsitate altuko interbalo-entrenamenduak ere gomendatzen ditu. Hala ere, garrantzitsua da ariketa fisikoak indibidualizatzea eta pazientearen beharretara egokitzea (9, 20, 31). Auto-monitorizazioa ere gomendatzen da, emaitza hobeak lortzeko (9).

Laguntza psikologikoarekin lotuta, psikoterapia OPSarekin lotutako komorbilitate psikologikoak tratatzeko erabilgarria izan ahalko litzateke (20). Bestalde, pisuaren mantenimendua puntu ahul gisa ikusi zuten egileek (9, 10, 18, 19, 35) terapia konduktualen eta terapia kognitibo-konduktualen beharra antzeman zuten, emaitza hobeak eta BEAren eragin handiagoa lortzeko (9, 10, 17, 19). Gaur egungo nazioarteko gidek (9, 10, 19), jarrerak edo ohiturak aldatzeko tekniken, autogestio edo autokontrol tekniken eta babes edo laguntza sozialaren integrazioa gomendatzen dute. Hala eta guztiz ere, aipatutako terapia eta tekniken inguruko informazio eta zehaztasun gehiagoren falta antzeman da eta etorkizunean garatzeko alderditzat hartu da.

Pisu-galerarekin lotuta, zenbait egileren arabera (9, 10, 12, 14, 16, 21, 30, 31) BEAk eragindako pisu-galerak hobekuntzak sortu zituen OPSan. Obesitate zentralaren prebentzioa garrantzitsua da, OPSan duen eragina ikusita (9, 10). Zenbait iturrik diotenez (9, 13, 14, 18, 22, 25, 30, 38) %5-10eko pisu-galera onura ugariarekin lotzen da OPSduten emakumeetan eta OPSdun emakumeetan populazio orokorarentzako pisu-galera gomendioak aplikatzea gomendatzen da gaur egungo nazioarteko giden gomendioak jarraituz (9, 10, 12, 14, 26-28). Horretarako, bizi-estilo osasuntsua gomendatzen da. Azkenik, pisuaren monitorizazioa edo segimendua emaitza hobeeekin lotzen da (9, 10) eta pisuaren eta GMIaren monitorizazioa aholkatzen da.

BEAk OPSan duen eraginari dagokionez, egileak orokorrean ados azaldu dira. Alde batetik, BEAren ondoriozko emaitza endokrinoen hobetzea antzeman da (9-13, 38). Hau, hiperandrogenismoa gutxitzearekin eta obulazioko disfuntzioak eta obulutegi polikistikoen morfologia hobetzearekin lotzen da. Beste alde batetik, BEAk emaitza antropometrikoak ere hobetzen dituela ikusi da (9-13, 21); honek obesitatearekin lotutako komorbilitate-arriskua gutxitzea dakar. Gainera, BEAren ondoriozko emaitza metabolikoen hobekuntza ere ikusi da (9-13, 21), eta IRan izandako eragin positiboak, OPSaren sintomen eta DM2a izateko arriskuaren eta arrisku kardiobaskularraren gutxitzearekin lotzen da. Azkenik, BEAk bizi-kalitatearekin lotutako emaitzetan eragin positiboa duela ondorioztatu da (13, 15, 25), eta hau OPSaren komorbilitate psikologikoen hobetzearekin erlazionatuta egon daiteke. Hau guztiagatik, egile gehienek

BEA OPSaren lehen mailako tratamendua izan beharko litzatekela diote (9-11, 14, 16, 18-22, 24, 26, 30, 31, 33, 38).

Orokorrean, erizainaren esku-hartzearekin lotutako emaitzak oso orokorrak izan dira, uneoro osasun-profesionalei erreferentzia egin baitzaie eta ez erizainari espezifikoki. Hala ere, osasun-profesionalek (erizainak barne) OPSdun emakumeentzako bizi-estiloaren inguruko hezkuntza eta laguntza eskaini beharko luketela ikusi da, pisu osasuntsua lortu edo mantentzeko (9). Gainera, OPSdun emakumeekiko errespetuzko jarrera eta jarrera ulerkorra izatea beharrezkoa da, atxikimendua eta mantenimendua areagotzeko. Honek guztiak, kontsulta-denbora eta osasun-kostuak areagotuko lituzke eta ezagutza espezifikoen beharra sortuko luke. Hala ere, epe luzera lortuko liratekeen onurak, OPSaren komorbilitateek sortutako gastu ekonomikoak baino gehiago izango liratekela suposatzen da. Amaitzeko, osasun-profesionalen informazio-beharrei buruzko ikerketa gutxi daude eta OPSari buruzko ebidentzian oinarritutako iturri ulergarri, eta bio-psikosozialen beharra nabari da (34). Horregatik, etorkizunean alderdi hau jorratzeko gida klinikoen eta ikerketa gehiagoren beharra ikusi da.

## **6. ONDORIOAK**

BEAren osagai nagusiak elikadura, ariketa fisikoa eta laguntza psikologikoa dira eta hauek pisua galtzera edo pisu osasuntsua lortzera bideratuta daude. Honetarako, elikadura osasuntsuaren printzipio orokorrak eta %30eko edo 500-750 kcal-eko defizit kalorikoa, asteen intentsitate moderatuko 250 minutu edo intentsitate aurreratuko 150 minutu ariketa fisiko aerobiko eta muskuluak indartzeko ariketak asteen bitan egitea gomendatzen da. Gainera, atxikimendua sustatzeko auto-monitorizazioa, terapia konduktualak eta terapia kognitibo-konduktualak gomendatzen dira.

BEA eraginkorra da OPSaren sintomak eta lotutako komorbilitate-arriskua hobetzeko eta OPSa tratatzeko lehen aukera izan beharko litzateke, baina gomendioak emakume bakoitzaren egoera indibidualera egokitu beharko lirateke..

